

BALDINTZA TEKNIKOEN AGIRIA, AENKOMERRI (ARABAKO MERKATARITZA ETA ZERBITZUETAKO ENPRESABURUEN FEDERAZIOA) LAGUNTZA EMATEKO ZERBITZUA KONTRATATZEKO, EFA 359/19 CORE PROIEKTUKO COACHING DIGITALAK EGITEKO, INTERREG V-A Espainia-Frantzia-Andorra PROGRAMAREN ESPARRUAN.

### (3. DEIALDIA)

#### 1.- Aurrekariak

Arabako Merkataritza eta Zerbitzuetako Enpresaburuen Federazioa (AENKOMER) bazkide onuradun gisa aurkeztu zen EFA 359/CORE proiektura, 2020ko urtarrilean hasitako Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra 2014-2020 programaren esparruan (3. deialdia).

Arabako txikizkako saltokiei coaching digitalak egiteko lanak gauzatzeko, AENKOMERek kanpoko zerbitzuen laguntza izateko aukera du.

Baldintza-agiri honen xedea zerbitzu honen kontratazioa arautuko duten ezaugarriak, espezifikazioak eta baldintza teknikoak zehaztea da.

#### 2.- XEDEA

Kontratuaren xedea AENKOMERi EFA 359/19 CORE proiektuko coaching digitalak egiten laguntzeko zerbitzuak ematea da.

Lan hau Interreg V-A Espainia-Frantzia-Andorra (POCTEFA) 2014-2020 programaren barruan dago (3. deialdia).

#### 3.- EGIN BEHARREKO LANEN IRISMENA, DESKRIBAPENA ETA ZENBATEKOA

AENKOMERek, EFA 329/19 CORE proiektuko bazkide gisa, honako lan hau egingo du:

- Heldutasun digitaleko diagnostikoak egiten eta digitalizazio-ibilbideak hornitzen saltokiei laguntzeko zerbitzua – crowdsourcing (lankidetzeta irekiko arloa).
- Digitalizazio-ibilbideak ezartzen eta irtenbide digitalak erabiltzen saltokiei laguntzeko zerbitzua.

Zerbitzu horiek emateko joan-etorriek eragindako gastuak lehiaketaren aurrekontuan sartuta daude.

Kontratututako enpresak edo profesionalak prestakuntza eta esperientzia nahikoak izan beharko ditu zerbitzuaren kalitate-baldintzak betetzen direla bermatzeko; zehazki, lanak

egiten dituzten langileek honako hauek izan beharko dituzte:

- Unibertsitateko prestakuntza,
- Enpresen kalitate-prozesuei, digitalizazioari eta soluzio eta tresna digitalei buruzko aholkularitzan frogatutako esperientzia.
- Eta esperientzia frogatua txikizkako merkataritza-enpresa txiki eta ertainei aholkularitza ematen.

Egin beharreko lanen zenbatekoa 12.000 €-koa da, zergak barne. Zenbateko hori AENKOMERek, CORE proiektuko bazkide gisa, horretarako hautagai-formularioan esleituta dituen partiden batukariari dagokio. Zerbitzua aldian-aldian ordainduko da, dagokion faktura aurkeztu ondoren.

Hona hemen aurrekontuaren banaketa, urte hauetan:

- Heldutasun digitaleko diagnostikoak egiten eta digitalizazio-ibilbideak hornitzen saltokiei laguntzeko zerbitzua – crowdsourcing (lankidetzaren irekiko arloa).
- 2021: 6.000 €.
- Digitalizazio-ibilbideak ezartzen eta irtenbide digitalak erabiltzen saltokiei laguntzeko zerbitzua.
- 2021: 5.000 €.
- 2022: 1.000 €

#### 4.- GAUZATZEKO BALDINTZAK

##### 4.1. Gauzatze epea

Espediente honen xede diren zerbitzuak emateko epea kontratua sinatzen denetik 2022ko martxoaren 31ra artekoa izango da.

Aurrekoa gorabehera, zerbitzuak amaitzeko epea luzatu ahal izango da CORE proiektuko lankidetzaren erabakiz, baldin eta Kudeaketa Agintaritzaren baimena jasotzen bada amaieradata atzeratzeko.

Beraz, kontratu honen amaiera proiektua amaitzearekin lotuta egongo da. Zentzu horretan, CORE proiektua luzatzen bada edo gauzatze denbora gehiago ematen bada, kontratu horrek neurri berean egingo du. Denbora luzatze horrek ez du ekarriko denbora gehiago ematea, kontratatutako enpresak edo profesionalak egin beharreko lanak ez baitira handituko, baizik eta lanak egiteko epeak aldatu besterik ez da egingo.

#### 4.2.- Lantaldea

Kontratatutako enpresak edo profesionalak prestazioaren alderdiei buruzko ezagutza espezifikoak dituzten langile kualifikatuak aurkeztu beharko ditu, gutxieneko baldintza hauek betetzen dituztenak:

Unibertsitate-prestakuntza,

Enpresen kalitate-prozesuei, digitalizazioari eta soluzio eta tresna digitalei buruzko aholkularitzan frogatutako esperientzia.

Eta esperientzia frogatua txikizkako merkataritza-enpresa txiki eta ertainei aholkularitza ematen.

#### 4.3.- Egindako txosten eta dokumentuen jabetza

Kontratu hau gauzatzearen ondorioz enpresa edo profesional esleipendunak egindako dokumentu, ebazpen eta txosten guztiak kontratazio-organoaren jabetzakoak izango dira eskusiboki, eta kontratazio-organoak erabili, argitaratu eta zabaldu ahal izango ditu, osorik edo partzialki, kontratatutako enpresak edo profesionalak onartu beharrik izan gabe.

#### 4.4.- Konfidentzialtasuna

Enpresa esleipendunak eta hari atxikitako langileek kontratua gauzatzean eskuratzen duten informazioaren konfidentzialtasuna errespetatu beharko dute.

### 5.- ESKAINTZEN FORMATUA ETA EDUKIA

Proposamenak administrazio-klausulen pleguan adierazitako formatuarekin, betekizunekin eta dokumentazioarekin aurkeztuko dira.

Gasteizen, 2021ko uztailaren 20an

Sinatuta:

Dña. Edurne Parro García (Directora Gerente de AENKOMER)